



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA-OHARRA

BGPk Barik txartelari buruzko informazioa emateko telefono-zenbaki berria aktibatu du

- **Garraio Partzuergoaren Call Center-ak 94 685 50 00 telefono-zenbakia gehitu du.**

Bilbo, 2016ko martxoaren 30a.

Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) 94 685 50 00 telefono-zenbakia kontratatu du eta horren bidez, herritarrek Barik txartelaren eta lurraldeko garraio publikoaren inguruko informazio guztia lortu ahalko dute.

94 probintzia-kodea daraman telefono-zenbaki hori aste honetan gehitu da BGPk San Mames geltoki intermodalean daukan bezeroei arreta emateko bulegoaren bidez herritarrei informazioa emateko zerbitzura. Horrela, Bizkaiko Batzar Nagusiek agindutakoa bete da.

Martxoaren 21ean Bizkaiko Batzar Nagusiek ez-arauzko proposamen bat onetsi zuten batzarkide talde guztien oniritziarekin, Garraio Partzuergoak informazioa emateko telefono-zenbaki bat aktiba zezan, “94” probintzia-kodearekin, Barik txartelaren inguruko informazio-eskaerei eta kexei erantzuteko.

Batzar Nagusien ekimenean, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen zitzaion BGPN beharrezko kudeaketa-lanak egiteko, oraingo 901 123 123 telefono-zenbakiaren ordez Bizkaiko kodea duen bat jartzeko.

Momentu honetan telefonia-enpresen kontratu gehienek telefono finkoetara doan deitzeko aukera barne hartzen dute eskaintza komertzialetan eta beraz, pauso hori emanez gero, herritarrek dirua aurreztuko lukete. BGPren informaziorako telefonoguneak 11.000 dei jaso zituen 2015ean.

Hasiera batean bi telefono-zenbakiak mantenduko dira hilabete batzuek, bai 901 123 123 eta bai 94 685 50 00, eta ostean 94 probintzia-kodea daramana bakarrik geldituko da.